

# Kostu egitura

Zein dira zuen proiektuaren kosturik garrantzitsuenak?

Hasteko guk gure poltsikoetako dirua erabiliko dugu gure produktuen finantziak egiteko eta ekoiztu eta garraiatu ahal izateko. Behin, irabaziak izanda, haiekin finantziatuko ditugu.

Gure produktuaren kostu garrantzitsuenak ekoizpenean izango dira erabiliko ditugun materialak Euskal Herrikoak izango direlako eta garestiagoak izango direlako

Hori dela eta, ditugun kostu finkoen artean alokairua, interneta, webgunearen hostinga, garraioa eta publizitatea izango dira garrantzitsuenetarikoa. Definizioa esaten duen moduan hileroko diru kantitate berdina ordainduko dugu. Berriz, gidatu behar ditugun kostu aldakorretan, lehengaien erosketak, zerbitzu profesionalen kontratazioa eta abar izango ditugu kontuan. Hauek ekoizpenaren arabera dauden gastuak izango dira.

Kostuak minimizatzeko helburuarekin eskala-ekonomikoa formula erabiltzea komenigarria izango litzateke bi arrazoiengatik. Lehen, guri ondasun bat ekoizteagatik merkeagoa ateratzen zaigulako eta bigarrena, bezeroak kantitate gehiago erosteko aukera izango dutelako.

Hedapen-ekonomikoari dagokionez, ditugun baliabideekin ez dugu beste ondasunik ekoiztuko.